

losofoa, "Erdi Aroko Hume" deitua. Ockham-ek eraginda, Aristotele-ren Metafisikaren oinarriak kritikatu zituen, batipat "substanzia" eta "kausa" kontzeptuak ezetzatuz edo probabilitatetzat soilki hartuz. Elizak behartuta, bere doktrina ukatu egin zuen 1347-an.

Nikola Cusa-koa

Nikola Kryfts 1401ean jaio zen Cues-en, Treveris ondoko herrikka batean. Bere lehenengo ikasketak Deventer-eko ikastetxe batean egin zituen. Heilbergen-en ikasten du filosofia, baina hango nominalismoak ez du asetzen. Handik Pavia-ra jotzen du eta han, non averroismo aristotelista bait zen nagusi, medikuntza, matematika, zuzenbide kanonikoa, natur zientziak eta filosofia ikasi zituen. Elizgizon bezala kardinale izatera iritsi zen. Kontzilio bat bide zela, greziar zientziarekin harremanetan jartzeko aukera izan zuen. Itsasoaren händitasuna ikusiz mamitu zuen bere ideia nagusia: Mugagabeen bateratzen eta adiskidetzen direla aurka-koak. Gai asko urratu zituen eta bere idatziak ugariak dira. Haren idazlan filosofikoaren artean De docta ignorantia (1440) dugu aipagarriena.

Haren filosofiaren oinarriak neoplatoniko-kutsua du eta, horregatik, haren sistema teologian oinarritzen da. Erdi Aroko mistikoekin paralelismo ageria du (Escoto Eriugena, Eckhart-ekin eta). Bestalde, Cusa-koa modernoa da. Mugagabeari buruz duen kontzeptua oso loturik dago *matematikari, eta errealtate mugagabearen ikuskeratik aterako dituen ondorioak ezagutzaren teoriari aplikatuko dizkio. Mugagabeen bateratzen dira aurkakoak (coincidentia oppositorum). Kontzeptu hau erraza da ulertzen, matematikari jarraituz gero. Adibidez, demagun erradio mugatuko zirkunferentzierdi bat. Erradioa handitzen badugu, zirkunferentzierdiaren kurbatura gutxituz joango da eta gero eta lerro zuzenaren antza handiagoa hartuko du. Berdin poligono edo trianguluekin. Mugagabeen, beraz, kurbak eta zuzenak bat datoz. Mugagabeen, dena, dena da. Eta mugagabea, azken finean, mugatua den guztiaren arrazoia da. Era berdinean, Jainkoa gauza guztien arrazoia eta izaera da.

Prozesu eta pentsatzeko era honetan datza Cusa-koaren berriztatzea. Ordurarte, jakintzaren kontzeptu absolutua mantentzen zen. Baina Cusa-koak, bere Docta ignorantia-ren bidez, alde batera uzten ditu azken *jakintza eta jakintza behin-betikoaren ideal dogmatikoa. Beraz, Sokrate-ren modura, bere abiapuntua ezjakintasunean datza. Izaera kezkatu batean oinarriturik, mugagabearantz jo behar du, bere izaera ziztrin hau

nolabait asetzeko, nahiz eta asmo hori sekula ez lortu. Unibertso anizkor honetan ez dira bi gauza berdin aurkituko. Beraz, gure ezagutza "susmo"az baliatzen da, ez bait ditugu sekula gauzak behin-betiko ezagutuko. Honen ondorioak zeintzu diren asmatzen ez da zaila: gizaki guztiak eritziak mugatuak direla, gizaki bakoitzaren egia errespetagarria dela eta erlijio-*tolerantzia logikoa dela.

Nikola Cusa-koaren eragina handia izan zen. Giordano Bruno, Ficino, Pico, Paracelso eta Leibniz izan ziren haren ideiez gehien kutsatu zirenak. Italia-n hil zen 1464ean.

Xabier Olano

Nikola Oresme-koa

XIV. mendean Frantzian bizi zen filosofo, matematikari, fisikari, ekonomista eta astronomoa da, Ockham-en eszeptizismoak eta kritizismoak eraginda, Aristotele-ren doktrinak eta, orobat, superstizioa ezetsi zituen. Metodo bat asmatuz gero, denbora, mugimendua, etab., lerroen bidez adierazi zituen eta zientzien arlo asko aztertu zuen. Obrak: Tractatus de configurationibus formarum; De uniformitate et difformitate intentionum; De velocitate motus alterationis.

Nirvana

Palieraz: Nibbana. Jatorriz "hozketari" edo "itzalpena" adierazten du. Esangura moral eta erlijiozkoa eman dio, ordea, *budismoak berba horri. Gaitzaren eta oinazearen iturri nagusiak grina, gorrotoa eta iruzurra omen dira; horiek gizakiari ematen dioten "sukarretatik" askatzea da, beraz, Nirvana, beronen esangura erlijiozko-moralaren arabera.

*Transmigrazio eta *berraragiztapenari loturik dago Nirvana kontzeptua: hain zuzen ere, bizialdi-katea horretatik askatu ondorengo egoera da hura. Hala ere, norberaren bizialdiaren barruan ere lor daiteke Nirvana, bizi-guraria edo -lehia "itzaltzea" lortuz gero.

Hau da Nirvana-ren alderdi "negatiboa", nolabait esateko. Baina ez da benetako alderditzat hartu behar, eta bai egoera berberaren ikuspegi bezala. Izan ere, Nirvana-ren ikuspegi "positibo"aren aldetik biziera berri bat da, bete-betea. Itzaltzearekin batera argitzapen berria gertatzen da.

Itzaldura-egoera bezala da, beraz, Nirvana. Gizakiaren erabateko deuseztapen bezala ulertu izan da inoiz egoera hori; baina budismoaren arabera, nortasunaren deuseztapen "moral" bezala ulertu behar da, eta ez deuseztapen metafisiko bezala. Hau da, itzal-

Nishida Kitaro

tzen eta suntsitzen dena grinadun, gorrotodun eta iruzurrezko norbanakoa da, eta ez gizakiaren benetazko izana bera.

Budismoak predikatzen dituen Lau Egia Jatorretan hirugarrena da Nirvana-ri dago-kiona: hau da, oinazea ken daitekeela irakasten duena, berraragiztapenaren kateatik ihes eginez batera eta bizikera berrira, Nirvana-ra helduz.

Laugarren Egia Jatorrak, berriz, Nirvana-ra iristeko helbidea irakasten du: hots, "Zortziko Bidea". Hauek dira zortzi bideok: sineskera eta ulerkera zuzena eta asmo zuzenak; hizkera zuzena, gorputzarekiko jokabide zuzenak eta lanbide zuzenak; gogarte zuzenak, aditasun zuzena eta baitaraketa zuzena. Zortzi bideok ematen dute printzipio budisten araberrako bizikeraren eskema; baina badi-rudi, eskema hau hasierako beste eskema hirukoaren hedapena besterik ez dela; hone-tara laburbiltzen zen eskema hura: fedea, gero jakinduria bihurtuko dena; etika; go-goeta.

Definizioezinezkotzat jotzen du budismoak Nirvana-ko egoera. Baina esandakoa laburbil-duz, sufrimendurik gabeko eta bake eta zor-rión osoko egoera adierazten duela esan dai-teke.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Budismoa.

Nishida Kitaro

Japoniar filosofo ospetsua, 1870-1945 urteetan bizi izandakoa, "Kyoto-ko Eskola"-koa. Zen budismoa eta Mahayana budismoa Mendebaldeko tradizioarekin lotzen saiatu zen, batez ere Bergson-en doktrinaren eta aleman idealismoaren zenbait alderditan oinarrituz. Obrak: *Zen no Kenkyu*, (Ona-ri buruzko azterketa), 1911; *Hataruko mono kara miru mono e*, (Egitetik ikustera), 1927.

Noema

Ik. Noesia.

Noesia

Noesia, *fenomenologian, pentsatzeko egintza bera da edo, zehazkiago, kontzientziari transzendentea zaión objektu bati buruz intrintsekoki intentzionala den egintza adierazten du. Noema, aldiz, egintza horren, hots, pentsatzen denaren koerlaziozko errepresentazioa da, hots, noesiaren zentzu objektiboa.

Ik. Nous-a.

Nominalismoa

Erdi Aroan *unibertsalen arazoa eztabai-datzerakoan, zenbait filosofok ez zuten

onartzen unibertsalek "izakitazun errealek" ukan zezaketenik edota izaki errealean baitan egon zitezkeenik. Filosofo hauentzat, unibertsalak ahotsaren soinu edo hots hutsek besterik ez ziratekeen: flatus vocis. Unibertsalak ez dira, izan, gauzen aurretik, *errealismoak eta platonismoak zioten bezala; ezta gauzen baitan ere, *kontzeptualismoak, errealismo moderatuak eta aristotelismo-mota batek defendatzen zuten bezala. Unibertsalak nomina, voces, edo termini dira: izenak, hitzak edo terminoak. Egiazko existentzia dutenak giza edo gauza *banakakoak dira, entitate partikularrak, jakinak.

Nominalismoaren presupostu nagusiak, hauek dirateke, Compiègne-ko Roszelino-ren tesiez baliatuz: a) unibertsalak ahotsaren soinuak dira; b) izaki partikularrak dira soilik errealak; c) kualitate bat ezin bereiz daiteke kualitate hori dukeen gauzatik. Ikusten denez, c) presupostuan aipatzen den kualitate edo "ezaugarria" unibertsalaren izena dugu.

Erdi Aroan bialdi ongi nabarmenak bereiz genitzake: *Roszelino-ren garaikoa, XI. mendearen ingurukoa da bata, eta Ockham-en garaikoa, XIV. mendean zeharrekoa, bestea. Korronte bion arteko kideetasunik badago ere, diferentziarik ere ez da falta. Dilthey-ren ustez, Ockham-en nominalismoa "boluntarismo"ak kutsaturik eta eraginik dago, Roszelino-renean horrelakorik gertatzen ez den bitartean. Beste zenbaitek, beste batzuren artean Paul Vignaux-ek, proposatu duenez, Erdi Aroko nominalismoa Roszelino-rekin ez baizik Abelardo-rekin hasi zen. Dena dela, Abelardo-ren nominalismoa oso diskutigarria da. Bestalde, eta nominalismoaren aurreagoko aztarnei bagozkie, Porfirio-ren genero eta espeziei buruzko teoriak zerikusi handia izan zuten geroagoko planteamenduetan unibertsalen arazoan.

Nominalismoak orduko errealismoaren kontra borrokatu zuen. San Antselmo dugu entzuetzuen errealesten artean, nominalistek "gure garaiko dialektikoak" deitzen zielarik. Hala ere, eta kritika hauek zirela bide, nominalisten artean eskola diferentek sortu ziren. Batzu "terminista" bilakatu ziren, izenei errealtate fisiko bat egozten zietelako; egun, teoria honek baditu bere defendatzaileak: "inskrizionistak". Beste batzu "kontzeptualismo"aren bidetik abiatu ziren, kontzeptua ezaugarritzen duena adierazpena zela baieztatuz. Doktrina hau errealismo moderaturantz hurbildu zen. Erdi Aroaren amaieran, *Gilermo Ockham-goaren garaian, filosofo honen tesiak nagusitu ziren, terminismoarenak berberak izaki.

Filosofia modernoan nominalismoak defendatzaile ezagun eta inportante batzu irabazi